

Urrezko domina lortu dute IMHko ikasleek EuskoSkills Diseinu Mekaniko-CAD eta CNC-Fresaketa kategorian.

Eusko Jaurlaritzak eta Tknikak antolatzen duten EuskoSkills “lanbide heziketako olinpiadak” bezala ezagutzen diren txapelketan, 2023ko edizioan 48 ikastetxetako 250 ikaslek parte hartu dute 29 kategoriatan, Irungo Ficoban, maiatzaren 10 eta 11an.

IMH Campuseko Ikastetxe Integratuko 10 ikasle eta irakasle taldeak parte hartu du CAD-Diseinu Mekanikoan, CNC-Fresaketan eta Elkarlan-Robotikan.

Lehiaketaren amaieran, harri-jasotze ikuskizuna eskaini dute Joseba Ostolaza Harri Eskolako gazteek, artean Imanol Royo “Lartain” IMHko ikasle eta EuskoSkills-etako parte hartzailea.

Sari banaketan urrezko bi domina eskuratu dituzte IMHko ikasleek, Oier Galindo Ramonek Cad Diseinu Mekanikoan eta Alberto Arribas Luquek CNC Fresaketan. Hori bai opari ederra! Hurrengo pausoa estatu mailako probetan parte hartzea izango da, Euskadiko ordezkari gisa.

Oier Galindo Ramon Elgoibartarra eta Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko heziketa zikloko ikaslea da, eta Alberto Arribas Luque Soraluzearra eta Produkzioaren Programazioko zikloko ikaslea (aurretik mekanizazioko erdi-maila ikasitakoa). Oier eta Alberto Euskadiko selekzioarekin batera parte hartuko dute estatu mailan 2024ko urtarrilerako aurreikusi den SpainSkills txapelketan.

Skills, “lanbide heziketako olinpiadak”

Lanbide Heziketan Skills izenarekin ezagutzen dira ikasleen artean egiten diren lehiaketak. Trebezia adierazteko probak kategoriaka egiten dira (industrian, osasungintzan, sukaldaritzan eta abar). Hiru mailatan ematen dira, Euskadi mailan, estatu mailan eta mundu mailan; EuskoSkills, SpainSkills eta WorldSkills izenpean.

Skills txapelketetako aurreko urteetan ere izan ditugu ikasle sarituak, eta Worldskills-etan parte hartzera iritsi direnak ere bai! Gogoan ditugu orain arteko “IMHko urreak”: Larraitx Uranga (urrea 2011 CNC-Fresaketa EuskoSkills eta Spainskills), Iñaki Hernández (urrea CNC-Tornua EuskoSkills eta Spainskills 2012), [Jon Lapeira](#) (urrea CNC Tornu eta Fresaketa EuskoSkills eta Spainskills 2015), [Eneko Barkin Agirre](#) (urrea CNC Tornua EuskoSkills 2016), Jon Peña (urrea CNC-Fresaketa EuskoSkills 2018); baita zilarrak ere: Aritz Telleria (zilarra CNC-Tornua EuskoSkills 2012), Jon Iriondo (zilarra CNC Tornua EuskoSkills 2016), [Asier Iraeta](#) (zilarra Polimekanika SpainSkills 2011) eta brontzeak: [eneko Ansola Olabarria](#) (brontzea CNC-Tornua EuskoSkills 2011), Ismael Fernandez (brontzea CAD-Diseinu Mekanikoa EuskoSkills 2012), Ander Torquemada (brontzea CAD-diseinu mekanikoa EuskoSkills 2021), Jokin Ansorregi (brontzea CNC-fresaketa EuskoSkills 2021)...

Elgoibarren, 2023ko maiatzaren 12an.

Informazio gehiago eta argazkiak

<https://www.imh.eus/eu/albisteak/euskoskills-urrezko-domina-cad-diseinu-mekanikoan-oierr-entzat-eta-cnc-fresaketan-albertorentzat>